

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuak itsuentsako eta haien hurbileko pertsonentzako bizi aldaketa bat suposatuko du. Bizi aldaketa horren ondorioz, ez dute kalean berriro arazorik izango norbait makilarekin jo dutelako edo ez dakitelako ze hurbil dagoean beste pertsona edo objektuengatik. Gure enpresak saltzen duen produktua besteen antzekoa izan arren, gure produktua dinamo bat izango du makilaren beheko puntan. Dinamo hori alde batetik bestera mugitzerakoan energia aurreztuko du eta energia hori horrek makilak izango duen radarrean erabiliko du.

Radarrak 5m edo hurbilago dituen pertsonak antzemango ditu eta bozgorailu baten bitartez itsuari abisatuko dio horrela itsuak inor jo ez dezan. Gainera makilak bibrazio eran ere jar dezakezu, itsuak ez ikusteaz gain entzun ere ezin badezake bibrazioa senti dezan. Soinua modu intermitentean joko du eta geroz eta hurbilago dagoenean geroz eta azkarrago joko du soinua eta oso hurbil egon ezkeromodu intermitenterik gabe joko du.

Gure bezeroek bizitzan zehar erabili dituzten makilek aurrean zituzten objektuak jotzerakoan jakinarazten zieten non zeuden obstakuluak, baina gure makilak duen baliagarritasuna da ez dituztela inoiz gehiago objektu horiek jo beharko, makilaren soinu eta bibrazioari esker jakin ahalko dutelako ea non dauden eta zer distantziara dauden. Sentsoreekin detektatu eta itsuari abisatuko dio non aurkitzen den objektua.

Gure proiektuaren berrikuntza mugimendu sentsoraz aparte, garrantzitsuena makilaren beheko puntan, dinamo bat duela da, baina, zertarako? Dinamoak energia eragiten du mugimendu bakoitzeko, eta elektrizitatea emoten dio bastoiari, honek gure bezeroak energia aurrezteko laguntzen dio. Bezeroek dirua aurreztu dezaten eta ingurumena zaintzeko eginda dago bastoia.

Hau entzutean, sentsoreak, dinamoak, ekologikoa... Pentsatuko duzue oso garestia izango dela, baina ez. Nahiz eta garestiagoa izan besteekin konparatuta, besteek baino teknologia gehiago duelako da, baina besteek baina baliagarritasun eta onura gehiago dakartza. Bestalde merkatuan teknologia antzekoa duten bezalako makilak egon arren, gure makila dinamoari esker kargatzen da eta ez du elektrizitaterik ezta etxean entxufatuta egoterik behar, horrela ere gure ekosistemari laguntzen diogu.

Amaki bastoiak diseinu moderno eta minimalista bat dauka, hiru zatitan banatu dugu.

1 zatia. Heldulekua: Heldulekua eskurako erosoak izango da, bigungarria izango da eta horren azpian zati luzagarria joango da.

2 zatia. Kontrol zatia: Zati hau garrantzitsuena izango da, hemen kontrol panela, eta sentsore guztiak egongo dira. Zatirik luzeena izango da, bere barnean luzagarria egongo delako. Luzatu nahi izanez gero, heldulekua atzerantz bota beharko duzu, horrela sentsoreak lurretik distantzia berdinerako egongo dira beti eta nahi duzun luzeerara jarriko duzu.

3 zatia. Punta: Makilaren azkeneko zatia izango da eta energia sortzailea izango da. Puntan gurpil txiki bat egongo da supermerkatuek dituzten karritoen gurpilen antzeko estruktura batekin, eta estruktura horren barruan dinamoak egongo da. Horrela gurpila norabide guztietarantz mugitu ahal izango da eta gurpilaren mugimenduari esker dinamoak aktibatuko da eta energia eragingo du mugitzerakoan. Energia hau kableen bitartez (bastoiaren barrutik) eramango dute enertia kontrol panelera bastoiaren sentsore eta funtzio guztiak aktibatuzeko.

